

XXI. mendearen hasierako euskal abertzaletasuna geldialdian. Egungo egoera politikoari buruzko hausnarketa

Mikel Aizpuru
Euskal Herriko Unibertsitatea

Artikulu honek euskal abertzaletasunak azkeneko urteetan bizi duen krisialdia aztertzen du. Horretarako hauteskundeetako emaitzak hartzen ditu kontuan eta izandako beherakadaren arrazoiak bilatzen saiatzen da euskal gizarteak izan duen bilakaeran. Azkeneko hauteskundeetako azterketa zehatza egin ondoren, etorkizun hurbilean abertzaletasunak dituen mugak erakusten ditu.

GAKO-HITZAK: Euskal abertzaletasuna · Hauteskundeak · Krisia, 2000-2010.

This article examines the crisis which Basque nationalism lives the last years. Takes into account the results of the elections and is trying to find reasons this fall in the evolution of the Basque society. After a detailed study of the last election, shows the limits of nationalism in the near future.

KEY WORDS: Basque Nationalism · Elections · Crisis, 2000-2010.

Jasotze-data: 2010-09-22. *Onartze-data:* 2010-10-19.

1. Sarrera

Idazki honetan aurkeztuko ditudan ideietako asko Donostiako Miramar Jauregian, 2008ko apirilaren 20an, eta Bilboko Euskalduna Jauregian, 2009ko uztailaren 29an, azaldu nituen. Tokia baino esanguratsuagoa da jakitea lehen hitzaldia Gipuzkoako Eusko Alkartasunak antolatutako jardunaldien baitan eman nuela eta bigarrena Hamaika Bat taldeak prestatu zuela. Hots, bi saioen artean abertzaletasunak zatiketa berri bat ezagutu zuen eta datu horrek are ageriagoan jarri zituen nik planteatutako hainbat gai. Edonola ere, eskerrak eman beharrean nago antolatzailerei, EAren jardueraren aurrean jarrera kritikoa erakutsi arren bertara gonbidatzeagatik. Miramarren aipatu nuenez, han esandakoak zintzotasunetik, leialtasunetik eta maitasunetik egindako iruzkinak ziren. Banuen, bestetik, nolabaiteko ezinegona historialari akademikoa naizenez, nire iritzi «profesionala» kezka politikoak dituen pertsona moduan ditudan uste eta nahiekin uztartu behar nuelako bi hitzaldi horietan.

Han esandakoak ez ziren originaltasuna bilatzen zuten ideiak. Nire inguru hurbilean, unibertsitateko harremanetan eta egindako irakurketetan maiz aurki daitezkeen kontzeptuak eta terminoak erabili nituen. Autoritate akademikoen babesa bilatu beharrik izan ez arren, zenbait egileren lanak aipatu nahi ditut, antzeko baieztapenak egin dituztelako edota gutxienez antzeko kezkak plazaratu dituztelako hitzaldi, artikulu eta lanetan: Xabier Aierdi, Txema Montero, Javier Elzo (nire aurretik hitz egin zuena Miramar jauregian), Daniel Innerarity, Ander Gurrutxaga eta Aingeru Epalza (berak ere parte hartu zuen Donostiako saioan) izan dira nire erreferentziak lan hau prestatzeko orduan. Bestetik, ezin utzi aipatu gabe www.goizargi.com aldizkari elektronikoa eta aberriberri.com blog-orria, lan eskerga egiten ari baitira abertzaletasunaren berrikuntzarako hausnarketa bidean.

Bi ñabardura sarrera honi amaiera emateko. Bat, ondoko datuetan maiz ez ditut ez Iparraldeko, ez Nafarroako kopuruak erabiliko, nire argumentaziorako egokiak eta mesedegarriak izan arren. Euskaltzaletasunaren eta abertzaletasunaren ezaugarriak arras desberdinak dira lurralde horietan, eta nahiago izan dut gehienetan nire azterketa EAera mugatu, nahiz eta jakitun naizen Arabako egoerak antz gehiago duela atal askotan Nafarroako kasuarekin, kostaldeko beste bi lurraldeekin baino. Bigarren ñabardura, beharbada, garrantzitsuagoa da. Hitzaldiak abertzaleen aurrean egindako saioak ziren eta hausnarketa eta eztabaida sortzeko asmoarekin. Ez zen, ondorioz, eskubide eta nahie buruz hitz egin bertan, ez zen kolokan jarri edota babestu abertzaletasunaren zilegitasuna bere eskariak egiteko, ezta Espainiako agintarien jarrera eskubide edo nahi horiek itotzeko orduan. *Realpolitik*-en esparruan kokatu zen, nahiz eta azterketa-eremua ez izan kanpo-politika, Bismarcken kasuan bezala, etxeko politikarena baino. Historialariok gertatutakoa aztertzen dugu eta ez gerta zitekeena edota gertatu beharko lukeena balizko eskubide edo nahi batzuen mesedetan. Errealitateari gehiegi lotzeak badiu bere morrontzak, gertatutakoa gerta zitekeen bide arrazional bakartzat hartzea eta beste aukerak Historiaren bazterrean zokoratzea, adibidez. Historialarion logika, sarri, boterearena da, agiri idatziekin lan egiten dugulako eta agiri horien sortzaileak eta hartzaile garrantzitsuenak boteregune desberdinetan

egoten direlako. Historialarion lan-metodologiak, baditu, noski, abantailak ere: herri honetan hain maizegi uztartzen diren desioak eta errealtateak ez nahasteak izan beharko luke horien lekuko.

Hainbat lerro idatzi ditut eta ez ditut oraindik nire helburuak adierazi. Bi dira, baieztapen bat egin (XXI. mendearen hasieratik abertzaletasunak bere osotasunean krisi larri bat bizi duela) eta haren zergatiak azaldu lehenik, euskal gizarteak eta euskal politikak azkeneko urteetan bizi izan dituzten aldaketak kontuan hartuta eta, bigarren helburua, egoera horri aurre egiteko plazaratu diren hainbat erantzunen zuzentasuna auzitan jartzea. Horretarako hainbat puntu jorratuko ditut: lehenengoan abertzaletasunak, nire ustez, bizi duen krisia azalduko dut. Bigarrenengoan abertzaletasunaren ibilbide historikoaren ezaugarri pare bat nabarmenduko dut. Hirugarrengoan euskal gizarteak azkeneko hogeita hamar urteetan bizi izandako aldaketa garrantzitsuenak jorratuko ditut. Laugarrengoan euskal sistema politikoaren ezaugarriak laburbilduko ditut eta, azkenekoan, proposamen horien bideragarritasuna kolokan jarriko dut. Lau aurrenekoetan gizarte-zientzialari eta historialarion artean nahiko adostasuna dago; azkenekoan, noski, nire iritzi propioa nagusitzen da.

2. Zer da krisi politikoa eta nola neurtzen da?

2.1. Hauteskunde emaitzak dira neurgailu nagusia

Gizarte-zientzialariek, politikariek, baita historialariok ere, maizegi erabiltzen dugu krisi hitza. Erabilera horrek bi arazo ditu. Batak ez dauka garrantzi handirik gaurko auziarentzat, baina merezi du aipatzea. Krisi kontzeptuak iradoki dezake gizarte eta sistema politikoak normalak direla denbora-tarte gehienetan eta noizean behin kinka larrian sartzen direla. Errealtatea ez da horrelakoa, gatazka gizarte-bizitzaren zati banaezina da eta nahiz eta zenbait unetan gatazkak eta tentsioak areagotu eta bizkortu, aldaketa gizarte-bizitzaren berezko ezaugarria dugu. Badago, gainera, beste arazo bat. Inork ez duela krisi politikoaren definiziorik zehaztu. Ekonomian, adibidez, atzeraldi terminoak adiera zehatza dauka: barne-produktu gordinak bi hiruhilabetez jarraian beherantz egiten badu, ekonomia hori atzeraldian dago. Nola neurtu, ordea, krisi politikoa? Nire ustez gurea bezalako gizarte batean hauteskundeak dira neurgailurik egokiena, nahiz eta ez izan bakarra. Soziologo eta politologo askok balioen inkestak erabiltzen dituzte gizarte baten nondik norakoak aztertzeko. Ez dut haien balioa ukatuko, erdibideak eta ñabardurak egiteko abagunea eskaintzen dutelako; baina politikoek inkestetan emaitza txarrak iradokitzen dizkietenean esaten duten moduan, «inkestarik onena hauteskundeak dira».

Zein hauteskunde ordea? Bost hauteskunde desberdin ditugu Euskal Herrian, udalak aukeratzeko, eskualdeko erakundeak osatzeko (Batzar Nagusiak Hegoaldean eta kantonalak Iparraldean), Eusko Legebiltzarra eta Nafarroako Legebiltzarra hautatzeko, Espainia eta Frantziako legebiltzarretara ordezkariak bidaltzeko eta, azkenik, Estrasburgoko Europako Legebiltzarra aukeratzeko. Ez dira, noski, garrantzi bereko lehiak eta horren ondorio dugu, besteak beste, parte-hartzea dezente aldatzea hauteskunde batetik bestera. Hauteskunde guztiak baloratu behar dira, baina irakurketa desberdinak egin daitezke arreta deialdi batean edo bestean jartzen badugu.

Euskal Herrian hauteskunde bakarra dago egun berean egiten dena lurralde osoan, Europako Legebiltzarrarena, eta horren arabera euskal politiko abertzale askok behin eta berriz errepikatzen duten leloaren faltsutasuna agerian geratzen da. 2009ko ekaineko hauteskundeetako emaitzek abertzaletasunaren ahulezia erakusten baitute: EAJren, EAren, Aralarren, Iniziatiba Internazionalistaren eta ABren artean ozta-ozta lortu baitzuten botoen % 41.


Ez dago irizpide bakar eta sendo bat hauteskunde-deialdi bat aukeratzeko. Zenbait aztertzaile abertzalek Eusko Legebiltzarrari ematen diote lehentasuna, hura delakoan erakunde nazional batera gehien hurbiltzen den instituzioa; beste batzuek, ordea, Espainiako Legebiltzarreko ematen diete garrantzi handiagoa, parte-hartzea altuagoa delako. 2008an Zapateroren agintaldia berretsi zuen deialdiak emaitza hauek utzi zituen Hego Euskal Herrian: indar abertzaleek botoen % 40 eskuratu zuten eta espainolistik % 60. Eusko Legebiltzarrerako 2009ko hauteskundeetan abertzaleek, boto nuluak tarteko, botoen % 52 lortu zuten eta espainolistik, Ezker Batua tarteko, % 48a. Araban, dena den, abertzaleek % 41 baino ez zuten lortu. Nafarroari dagokionez, 2007ko hauteskundeetan % 26,38k baino ez zion eman bere autarkia indar abertzale bati.

Alde esanguratsua dago, beraz, deialdi batetik bestera. Nire ustez, datu desberdinak erabiliko ditudan arren, Espainiako hauteskundeak dira neurgailu egokiena, horiek direlako parte-hartze handiena eskuratzen dutenak. Emaitzek bilakaera aldakorra izan dute, baina norabidea nahiko garbia dela uste dut:

Abstentzia EAEn 1986-2009

| Espainiako Legebiltzarrerako hauteskundeak | Abstentzia, % | Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak | Abstentzia, % |
|--|---------------|---------------------------------------|---------------|
| 1986 | 32,2 | 1986 | 29,6 |
| 1989 | 33,1 | 1990 | 39,1 |
| 1993 | 29,8 | 1994 | 40,3 |
| 1996 | 28,9 | 1998 | 29,4 |
| 2000 | 36,2 | 2001 | 21,01 |
| 2004 | 25,1 | 2005 | 32 |
| 2008 | 35,1 | 2009 | 35,3 |

Iturria: Lago Peñas, 2000, 90. or. eta <http://www.euskadi.net/elecciones/indice_e.htm>.



Bi kasutan bakarrik gainditu du Espainiako Kongresurako abstentzioak Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetakoak, 2000. eta 2008. urteetan eta oso azalpen erraza dauka datu horrek. Euskal Herritarrok alderdiak abstentzioa eskatu zuen lehen kasuan eta bigarreanean ez zioten utzi aurkezten.

Hainbat azalpen eman dira Espainia osoan gertatzen den desoreka hori argitze aldera (Font, 1995; Boix eta Riba, 2000; Riba 2000 eta Lago, 2000). Guztiek kontuan hartzen dituzte hautesleen balia bideak (motibazioa eta egoera soziala), alderdi politikoen kanpainak eta egitura eta koiuntura politikoak. Aditu batzuek legebiltzar autonomikoen ahalmen urriak azpimarratzen dituzte hautesleen urrunteza azaldu ahal izateko, baina egile gehienek beste bide batzuei jarraitu diete. Ikerketa batzuen arabera, Espainiako hauteskundeetan hautesleek eskuin-ekzerra dialektikari ematen diote garrantzia eta estatalista-abertzale lehiari lurraldeko deialdietan; beste batzuek, ordea, Espainiako hauteskundeetan parte-hartzea handiagoa dela azpimarratzen dute zenbait herritar gehiago identifikatzen direlako Madrileko Legebiltzarrarekin, Espainia osoa ordezkatzeko duelako edota botere gehiago duelako. Horren ondorioz, PSOEren, bereziki, IUren eta PPren boto-emak asko abstenitu egiten da lurraldeko hauteskundeetan. Katalunian hainbat ikerketa egin dira abstentzioaren kontua argitzeko, oso nabarmena delako bi hauteskunde-deialdien artean dagoen aldea. Ateratako ondorioen artean hauek nabarmenduko nituzke: CIUko boto-emakak direla fidelenak, PSCkoek hauteskunde autonomikietan botoa aldatzeko edo, bereziki, abstenitzeko joera handiagoa duten bitartean. Berriki plazaratu den lan batean, Josep María Vallésék eta Manuel Luquek ñabardurak eskaini dizkio eredu horri. Beraien esanetan, abstentzioa ez da berdin hedatzen lurralde osoan eta handiagoa da hiri handietako kanpoko aldeko auzoetan, Espainiako etorkin gehiago eta alderdi sozialistak, teoriar, ohiartzun handiagoa duen tokietan.

Ezin dugu eskura ditugun datuekin erantzun bat eman Euskal Herriaren kasurako, baina bi hauteskunde-ereduen arteko aldeak nabarmenak dira. Hego Euskal Herriko hautesleek nahiago dute botoa eman Espainiako hauteskundeetan bertakoetan baino. Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan abstentzio iraunkorraren presentziak ez du, halaber, erakunde horren zilegitasuna auzitan jartzen, baina okerra litzateke bere garrantzia baztertzea, aukera kritiko eta arrazionala delako praktikara eramaten dutenentzat. Erraza denez abstentziotik boto-emak izatera pasatzea, ezin da baztertu aldaketa esanguratsuenen bultzatzailea izatea. 2001eko datuek, dena den, erakusten digute parte-hartzea oso altua denean, boto berriak aukera desberdinen artean antzera banatzen direla. Azkeneko urteetan Europatik (Errumaniatik) eta Afrikatik eta Amerikatik heldutako etorkinek boto-eskubidea eskuratuko balute (lehen kasuan udal-hauteskundeetan badute) eta orain arteko joerak mantendu, emaitzak begi-bistakoak lirateke.

2.2. Abertzaletasunaren hauteskunde-krisia

Datu nabaria da azken hamar urteetan euskal abertzaletasunak sakoneko krisia bizi duela, nahiz eta alderdi bakoitzaren kasuan arrazoiak desberdinak izan. Krisi horrek hiru adierazle agerikoak ditu. Lehena, EAJ eta EAren egoera da, eztabaidaguneetatik kanpo egotea da, bozgorailu propiorik gabe eta beste aktoreen diskurtsoa bereganatuz (Rekondo, 2009). Horren lekuko dugu ikustea zein erraz

hartzen dituzten EA eta EAJko buruzagi askok Ezker Abertzalearen paradigmak eta hizkuntza (lurraldetasuna, subiranotasuna, eta abar). Bigarren adierazlea proposamen zehatzak azalarazteko erakusten duen zailtasuna dugu. Ibarretxeren proposamenen prozeduran egondako iluntasuna da horren adibidea: lehenik asmoa azaldu, ondoren proposamena egin, hasierako baldintzak (bortxakeria eza) aldatu; Madrileko gobernuak uko egin ondoren, irtenbide kontrajarri eta antzuak plazaratu... Antzeko zerbait gertatzen da Ezker Abertzalearen egitasmo askorekin.

Hirugarren adierazlea eta nabariena, nahiz eta askotan aipatu ere ez den egiten, hauteskunde-jatsiera dugu. Bi eratara neurtuko dugu, Espainiako datuekin lehenik eta Eusko Legebiltzarrerako datuekin ondoren

Espainiako Kongresurako hauteskundeak EAEn 1986-2008.

| Urtea | EAJ | | HB | | EA | | EE | | GUZTIRA |
|-------|------------------|-------|---------------------------------|------------------|------------------|-------|------------------|------|-------------------|
| | Kopuru absolutua | % | Kopuru absolutua | % | Kopuru absolutua | % | Kopuru absolutua | % | |
| 1986 | 304.675 | 27,97 | 193.724 | 17,78 | | | 99.408 | 9,12 | 54,57 |
| 1989 | 252.119 | 22,93 | 186.646 | 16,98 | 123.613 | 11,24 | 97.289 | 8,85 | 60 |
| 1993 | 287.908 | 24,44 | 174.655 | 14,83 | 117.856 | 10,01 | | | 49,28 |
| 1996 | 315.793 | 25,43 | 154.853 | 12,47 | 103.628 | 8,35 | | | 39,12 |
| 2000 | 347.417 | 31,32 | Abstentzioa eskatu ¹ | | 86.557 | 7,8 | ARALAR | | |
| 2004 | 420.980 | 34,19 | Nuluak 104.017 | 7,9 ² | 80.905 | 6,57 | 38.560 | 3,13 | 51,6 ³ |
| 2008 | 306.128 | 27,61 | Legez kanpo | | 50.371 | 4,54 | 29.989 | 2,71 | 34,86 |

Iturria: <http://www.euskadi.net/elecciones/>

Ikusten denez, emaitzek ez dute bilakaera ikusgarririk eskaintzen, baina bai joera garbi bat: laurogeiko hamarkadan alderdi abertzaleek aise irabazi zituzten Espainiako Kongresurako hauteskundeak, hurrengo hamarkadan alderdi espainolistek irabazi zituzten ozta-ozta eta mende honetan are errazago 2004ko salbuespenarekin. Garaipen hori azaltzeko nahikoa da, dena den, PPren gobernuen aurkako giroa eta Madrileko martxoaren 11ko atentatuen ondorioak gogoraraztea. Badago aurrekoa bezain begi-bistakoa den beste ondorio bat. EAJk bere hautesleria mantendu duen bitartean, hainbat gorabeherarekin, beste alderdi abertzaileen egoera oso bestelakoa izan da. EE desagertu egin zen eta bere botoak, neurri handian, ezkutatu egin ziren. EAK ia-ia hiru hautesletik bi galdu ditu eta Herri Batasunak, legez kanpoko egoerak neurketa zuzena egitea eragotzi arren, ia bere jarraitzaileen erdia galdu du, abstentzio eta Aralarren mesedetan. Ez dirudi, ondorioz, euskal abertzaletasuna eroso dabilenik euskal herritar gehien botoa ema-

1. Hauteskunde biharamunean hainbat azterketa egin baziren ere, ezinezkoa da, nire ustez, zehaztasun osoz finkatzea abstentzioaren zein zatik erantzun zion EHren deialdiari eta zeinek bestelako arrazoiei.

2. Nuluen kopuru osoa hartu da, Euskal Herritarroki zegozkionak zuzen kalkulatzeko nulu teknikoak eta bestelako arrazoiaren ondorioz emandakoak kendu beharko lirateke.

3. % zehatz-mehatz kalkulatzeko, EHren botoak besteekin elkartu eta banaketa berriro egin beharko litzateke, baina kopurua ez litzateke asko aldatuko. Edozelan ere, emaitzak ez luke gure azterketa ezeztatuko.



tera joaten den deialdietan. 2008an, adibidez, EAJK zuzenean jaso zuen krisiaren berri, EAEn PSOEk baino 122.000 boto gutxiago jaso zituen eta lehenengo aldiz Bizkaiko lehen postua galdu zuen. EAK, bide beretik, Gipuzkoan zuen legebiltzarkide bakarra PSOEren esku utzi zuen.

Ikus dezagun segidan zer gertatu den Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan

Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak EAEn 1986-2009.

| Urtea | EAJ | | HB | | EA | | EE | | GUZTIRA |
|-------|----------------------|-------|-------------------|-------|------------------|------|------------------|------|---------|
| | Kopuru absolutua | % | Kopuru absolutua | % | Kopuru absolutua | % | Kopuru absolutua | % | |
| 1986 | 271.208 | 23,71 | 199.900 | 17,47 | 181.175 | 15,8 | 124.423 | 10,8 | 67,78 |
| 1990 | 289.701 | 28,49 | 186.410 | 18,33 | 115.703 | 11,3 | 79.105 | 7,78 | 65,9 |
| 1994 | 304.346 | 29,84 | 166.147 | 14,41 | 105.136 | 10,3 | | | 54,55 |
| 1998 | 350.322 | 28,01 | 224.052 | 17,6 | 108.635 | 8,69 | | | 54,3 |
| 2001 | Koalizioa 604.222 | 42,72 | 143.139 | 10,12 | | | ARALAR | | 52,84 |
| 2005 | Koalizioa 468.117 | 38,67 | 150.644 | 12,44 | | | 28.180 | 2,3 | 53,41 |
| 2009 | 399.600 | 38,56 | Nuluak 100.939 | 9,5 | 38.198 | 3,69 | 62.514 | 6,0 | 57,75 |

Iturria: <http://www.euskadi.net/elecciones/>



Iturria: <http://aberriberri.com/2009/02/23/hauteskundeen-analisisen-korapiloa/>

Hauteskunde-eremua, ustez, egokiagoa izan arren indar abertzaleentzat, bilakaera hemen ere nahiko deigarria da: alde batetik EE desagertu zen eta EAK bost boto-emailetik lau galdu ditu. EAJk zatiketa aurretik zituen botoak eta portzentajeak berreskuratu ditu. ETA Militararen inguruan sortutako Ezker Abertzaleari dagokionez, bi datu azpimarratu daitezke. Lehenik eta behin, jaitsierarako joera erakutsi duela, 1998ko salbuespen garrantzitsua kontuan hartu behar den arren; bigarrena, jaitsiera hori ez dela hain nabarmena Aralarrek ateratako botoak elkartzuz gero. Ikusi egin beharko litzateke, dena den, batuketa horrek eragiketa matematikoaren esparrua gaintzeko moduan legokeen. EAEn abertzaleek nagusi jarraitzen dute, botoa eman dutenak kontuan hartuta, baina ez errola bere osotasunean hartuz eta bilakaera, hemen ere, jaitsieraren aldekoa da.

Hauteskunde-datuek plazaratzen duten beste kontu bat da boto-emaile berriak erakartzeko gaitasunik eza. Inguru abertzale eta euskaldunetan arazo demografi-koen ondorio izan daitekeena, are kezagarriagoa bilakatzen da eremu erdaldunetan, hiri horiek direlako egun generik dinamikoenak. EAJ-EA koalizioak 2001 eta 2008 bitartean izandako zailtasunak izan dira krisiaren beste lekukoa. Ezker Batuaren laguntza ezinbestekoa izan zen Eusko Jaurilaritza osatu ahal izateko. 2001eko datuak arrakasta moduan har baldin badaitezke ere (Batasunaren botoak beharrezkoak izan ziren gobernatzen hasteko eta indar espainolistek abertzaleek baino bakarrik 25.000 boto gutxiago jaso zituzten), 2005ekoak arazoaren isla berria izan ziren. Izan ere, deialdi hartan Ibarretxek zuzentzen zuen koalizioak lau urte lehenago baino 136.000 boto gutxiago jaso zituen. Porrota are deigarriagoa izan zen, kontuan hartuz gero, hauteskunde horiek, neurri batean, plebiszitu moduan aurkeztu zirela Ibarretxeren lehen planak Madrilen ezezkoa jaso ondoren. Asko luzatu daitekeen zerrenda honetan azken elementu bat aipatu nahi dut: iniziatiba politiko garbiaren falta, bai bortxakeriaren aurrean, bai elkarbizitzari dagokionez. ETArekin aurkako kritikek une oro ziprztintzen dute abertzaletasun demokratikoa eta ez da harritzekoa hori gertatzea EAJko eta, bereziki, EAKo buruzagi batzuei behin eta berriz entzuten diegunean, ETArekin duten desberdintasun bakarra indarkeria dela, helburu berdinak bilatzen dituztela iradokiz. Elkarbizitzari dagokionez, erabakitze eskubidea euskal politikaren ardatz bilakatzeak, asmo horrekin bat egiten ez dutenak abertzaleengandik urrundu egiten ditu, erakarri ordez.

Zein dira egoera horren arrazoiak? Nire ustez, ondoren aipatuko ditudan gizarte-aldaketek zerikusi garrantzitsua dute, baina beste asko ekar daitezke hona. Bada bat gutxi aipatzen dena, eta ez EAJk ezta EAK ere ez dutena kontuan hartzen, denbora asko daramatela, modu batera, izen batekin edo bestearekin, boterean eta gaurko gizarteak, neurri batean, bederen, aldaketa saritzen duela. EAJren kasuan, 1979tik dago erakunde askoren zuzendaritzan, bakarrik edota beste batzuekin lankidetzan eta ez da erraza gure inguruan horrelako fenomenorik ikustea. Espainian Extremaduran eta Andaluzian gertatzen da, baina ez dira gure erreferentzia. Alemaniako Bayern-en dute bertako kristau-demokratek historia bera, baina han ere azken hauteskundeetan nagusitasun hura pitzatzen hasi zen. Ez da denbora kontua bakarrik, erabilitako kudeaketa-ereduak, bai alderdietan baita erakunde publikoetan ere, jende asko urrundu du euskal abertzaletasunaren-gandik. Gauza bera eragin zuen bi alderdiek ematen zuten batasunik ezak eta liskarren irudiak.

Egoera hori, abertzaletasunaren krisiarena, ez da, dena den, historian lehenengo aldiz gertatzen.

3. Abertzaletasunaren bilakaera ziklikoa

Zenbait historialarik Erdi Arora edota Aro Modernoaren hasierara (Nafarroako konkistara) atzeratu nahi izan arren «euskal auziaren» hasiera, aditu gehienok bat egiten dugu abertzaletasunaren agerpena Aro Garaikidearen lotzeko orduan. Hiru gertaera daude abertzaletasunaren jatorrian, nahiz eta desadostasuna egon baikoitzaren garrantzia azpimarratzeko orduan. Foruen abolizioa, 1876/1877 bitartean jazo zena; euskara eta euskal kulturaren atzerakada nabarmena, eta industrializazioaren zabalkunde azkar eta bortitza. Azken arrazoi horrek, adibidez, esplikatzeko du abertzaletasunaren lehen aldarria Bilbon ematea eta ez ingurune euskaldunago batean. Foruen abolizioak Espainiaren eta Hego Euskal Herriaren arteko harreman berria sortu zuen eta aurreko hamarkadetan behin baino gehiagotan entzun baldin baziren euskaltzaletasunaren zantzuak, 1876tik aurrera ikusiko ditugu, ñabardurarik gabeko euskal nazioaren aldarrikapenak. Horien artean nabarmenena eta arrakastatsuen Sabino Aranarena izan zen. Aranek garatu zuen abertzaletasunaren kontzeptuak hainbat ezaugarri berri zituen, baina ez da zaila beste batzuen arrastoak bilatzea haren aurreko pertsona eta ideologoetan. Hiru dira lehen multzoan sar ditzakegunak: arrazaren garrantzia, antiespañolismoa eta independentismoa. Bigarren multzoan daude Historiaren eta erlijioaren pisua, euskaltzaletasuna eta autonomismoaren onarpena. Arana bizi zela elementu horien garrantzia aldatzen joan zen unearan arabera eta gauza bera gertatu zen hura hil ondoren.

Era horretan abertzaletasunaren garapenak garbitasun ideologikoa mantendu zuen, malgutasun pragmatikoa erakusten zuen bitartean hauteskunde-borrokan. Malgutasun horren oinarriak erlijioaren defentsa, euskaltzaletasuna, foruzaletasuna eta autonomismoa izan ziren. ETA sortu arte, eredu hori zalantzan jarri zuten bakarrak Eusko Abertzale Ekintza eta Jagi-Jagi izan ziren. Lehen taldeak kolokan jarri zuen mugimendu abertzalearen konfesionaltasuna, autonomiaren aldeko apustu garbia egin zuen eta justu gerra zibilaren aurretik ezkererako joera onartu zuen; Jagi-Jagik, aldiz, independentziaren aldeko apustu garbia suposatzen zuen. Baina salbuespen horiek ez dute kolokan jartzen arestian markatutako ereduaren balioa. 1936 arte abertzaleek ez zuten presentzia handirik eduki euskal erakunde publikoetan, udal-mailan kenduta eta Bizkaiko Aldundian 1917 eta 1919 bitarteko salbuespena alde batera utzita. Horren ordean, ekintzarako tresna eraginkorrak sortu zituen: alderdi politikoak, sindikatuak, prentsa, batzokiak, kultura-elkarteak, kirol-erakundeak, irakaskuntza-sarea, eta abar.

Eredu eta mezu desberdinen bilbaketak abertzaletasunaren hazkundea ahalbidetu zuen, bai gerra aurretik, baita Frankoren heriotzaren ondoren ere. 1917an jeltzaleak, lehen aldiz, Bizkaiko Aldundiaren jabe egin ziren; 1933an estatutuaren aldeko erreferendumaren osteko hauteskundeak irabazi zituzten Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian; 1980an Karlos Garaikoetxearekin Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak irabazi zituzten eta gauza bera gertatu zen 2001ean Ibarretxe lehendakariarekin. Garaipen horiek ez zioten erantzuten abertzaletasunaren mezurik erradikalenari, autonomiaren aldarrikapenari baino. Arrakasta, alta, mugatua izan zen,

beste indar politikoen indarra ere oso nabarmena izan delako eta errealitate horrek abertzaletasunaren barne-kontraesanak azaleratu, mezu kontrajarriak zabaldu eta hainbat krisi bultzatu zituen.

1921ean Jel Batza zatitu egin zen eta EAJ, *Aberri* aldizkariari lotutako alderdi independentista, sortu zen. Zatiketa 1930ean amaitu zen, baina urte horretan bertan EAE sortu zen. 1934-36 bitartean *Jagi-Jagi* taldea jeltzaleengandik urrundu egin zen eta alderdiak barne-krisi latza bizi izan zuen, gerraren hasierak itzali zuena. ETaren sorrera Aranaren mezuarekin apurtzeko ahalegin berria izan zen, berehala marxismoarekin eta armen erabilerarekin nahastu zena. 1986an EAJren zatiketa gertatu zen, Eusko Alkartasuna sortuz. 2005-2008 garaian, azkenik, bi fenomeno gertatu dira: alde batetik, boto-jaitsiera, eta, bestetik, barne-tentsioak EAJren baitan, Eusko Alkartasunaren zatiketa eta norabide politikoari buruzko zalantzak, kontsulta eta erabakitzeko eskubidearen inguruan. Azken urte hauetako krisia da, hain zuzen, nire hausnarketaren oinarria eta, ondoren azalduko dudanez, euskal gizartearen aldaketen eta euskal politikaren sistemaren ezaugarrien ondorioa da.

4. Euskal gizartearen aldaketak

Ez dago aldaketarik ez duen gizarterik, baina maiz, oharkabean pasatzen dira, fenomeno berriak arin-arin barneratuz eta betikotuz gure artean. Kanpotik begirata, ordea, aldaketa sakonak eta sustraikoak bizi izan ditu euskal gizarteak azkeneko berrogei urteetan. Michel Walzerrek (2010: 160-162) aipatu dituen lau mugikortasunak jazo dira gure artean: *mugikortasun geografikoa* (ez gara lehengo tokietan bizi), *mugikortasun soziala* (gizarte-taldeen osaketa eraldatu egin da, seme-alabek ez dute ez gurasoen ogibiderik, ezta beraien gizarte-posizioirik ere), *ezkontza-mugikortasuna* (inguruko herrietako mailakoa izan ez arren, banaketa, dibortzio eta ezkontza berrien indizeak oso altuak dira eta familia-egituran aldaketa sakonak bultzatu dituzte) eta *mugikortasun politikoa* (buruzagi eta alderdi politikoei eskainitako leialtasuna asko higatu da azkeneko hamarkadetan).

Azpmarratu nahi ditudan datuen artean, lehena biztanleriari dagokio. Hiru dira, ildo honetan, aditu guztiek nabarmentzen dituzten datuak: lehena EAEko biztanleria mantendu egin dela. 1981. urtean 2.141.809 lagun bizi ziren hemen, 2006. urtean 2.129.339. Kontuan hartu behar da azken datu hori ulertzeko azkeneko urteetako immigrazioak estali egin duela aurreko hamarkadetako jaitsiera. Herrialde baten bizitasunak, besteak beste, bere biztanleria du ispilu: jendea erakartzeko edota bertakoei eusteko gaitasunik ez duen herrialdeak arazo handi bat dauka. Bigarren datua euskaldunen zahartze-prozesuarekin lotuta dago. Ugariagoak dira hirurogei urte edo gehiago dituzten euskaldunak hemezortzi urte baino gutxiago dituztenak baino. Gizarte zaharrek beste lehentasun batzuk dituzte gastuak bideratzeko orduan eta kontserbadoreagoak bilakatzen dira, baita politikan ere. Hirugarren datua, etorkinen, zahar eta berrien, nagusitasunarekin lotuta dago: euskal biztanleen bi herenak edota beraien gurasoak ez dira bertan jaio eta zuzentasun politikoak kontrakoa esan arren, askoren integrazioa oso apala da.

Euskal gizartea hirietan bizi da, ez da beharrezkoa Lan Kide Aurrezkiko azken urteetako egutegiei begiratzea horretaz jabetzeko. Bilbo, Gasteiz, Donostia, Barakaldo, Getxo eta Irun batuz gero 999.535 euskaldun bilduko genituzke. Herri

txikien biztanleria jaitsi edota pixka bat handitu den bitartean, hirietakoa eta kostaldekoa, oro har, nabarmen emendatu da. Aipatutako hirien artean, Bilbok eta Getxok baino ez dute alkate abertzalea. Ekonomikoki ekoizpen-sektoreen aldaketa handia gertatu da. Egia da industriak oraindik pisu handia duela gure artean, baina zerbitzu-sektorea gailendu zaio azken urteetan. Lan desberdinak, kualifikazio desberdinak, enpresa desberdinak ditugu, beraien kezka eta merkatuak ez dira, halaber, lehengoak.

Ikuspegi sozialetik emakumearen presentzia publikoa asko indartu da. Etxetik kanpo lan egiten duten emakumeak askoz gehiago dira eta horrek ondorioak ditu familia-ereduan eta haur kopuruetan, baita aisialdia bizitzeko ereduetan eta gero eta gehiago izango du eskakizun politiko eta sozialetan eta, antza, horiek gauzatzeko moduetan. Zer esan sexualitatea bizitzeko moduei buruz?

Jende gaztearentzat oharkabean pasatu arren, sekularizazio erlijiosoa da Euskal Herriko gizarte-fenomeno deigarrienetako bat (Elzo, 1987 eta 2001). Duela berrogeita hamar urte Eliza Katolikoaren presentzia erabatekoa zen, egun astero mezetara joaten direnen batez bestekoen adina hirurogeita bost urtetik gora dago eta Elizaren mezu askoren oihartzuna hutsaren hurrengoa da, bereziki gazteenen artean. Alderdi jeltzaleak berak abortua edota homosexualen arteko harremanak onartzen ditu. Urruti geratu da, «Gu Euzkadirentzat eta Euzkadi Jaungoikorentzat». Antzeko zerbait gertatu da politika bizitzeko eta ulertzeko moduekin. 1970eko hamarkadan jende askorentzat politika eguneroko bizimoduaren ardatza bilakatu zen; egun, politikari profesionalak izan ezik, gutxi dira horrelako kontuak hurbiletik jarraitzen dituztenak. 2008an zabaldutako berria izan daiteke horren adibide garbia: gipuzkoar gehiagok ezagutzen zuten Barack Obamaren izena, Markel Olanorena baino.

Kulturaren arloan hiru dira azpimarratu beharreko kontuak. Lehenik eta behin, hezkuntza-mailaren igoera, gero eta gehiago dira goi-mailako ikasketak dituzten euskal herritarrek, kopurua bikoiztu egin da. Maiz harrিতa ikusi arren jakinduria hori ez dela islatzen bizitzaren esparru pribatu edota publiko askotan, herritarrek mezuak jasotzeko eta bereganatzeko edota kritikatzeko eskura dituzten baliabideak asko aberastu dira azkeneko hamarkadetan. Horrekin batera Euskal Herritik kanpo sortzen diren komunikabideen presentzia nabarmen areagotu da gure artean. Kontua ez da bakarrik euskal abertzaletasunarekin kritiko diren euskal medioen sendotasunak zalantzan jartzen duela haren balizko hegemonia, baizik eta telebistan edota Interneten gero eta presentzia handiagoa dutela Euskal Herritik kanpo sortutako iturriek. Informazioa eskuratzeko bideetan ugaritzea gertatu da eta hori, berez, ona izan arren, euskal nortasun desberdindua defendatzen dugunok arazo gehiago ditugu mezu hori zabaltzeko eta entzunak izateko. Atal honetako azken puntuak lotura zuzena dauka euskalduntzearen indar eta ahuleziekin. Azken hogeita hamar urteetako ahaleginei esker biztanleriaren erdiak euskaldun edo ia-euskaldun moduan definitzen du bere burua. Hazkunde hori ez da ikusten, ordea, erabiltzeko orduan eta bi erreakzio kontrajarri sortu ditu. Batetik euskaldun askok harriduraz, haserretuta eta etsipenez ikusten dute euskal erakundeek ez dutela politika linguistiko koherente bat bultzatzen, ertzain gehienek ez dakitela euskaraz eta gainera susmagarritzat hartzen dutela haiengana euskaraz zuzentzea eta gauza bera gertatzen dela Osakidetzan eta beste hainbat erakunde

publikotan. Egoera horrek urrundu egiten ditu pertsona horiek politika instituzio-naletik. Beste askoren artean, ordea, kontrako jarrera zabaldu da eta zenbait medioaren laguntzarekin urte askotan egiten ausartu ez direna, orain ari dira egiten, euskara eta horren normalizazioa bultzatzen dituzten ahalegin gehienak kritikatzeko dituzte, abertzaletasunaren inposizioatzat hartuz

5. Euskal politikaren ezaugarriak

Aldaketa sozialak ez ezik, sistema politikoan ere aldaketa ugari izan dira. Puntu honetan nire ustez egiturazkoak direnak aipatuko ditut eta hurrengo atalerako utziko ditut epe laburrari dagozkionak. Azpimarratu beharreko lehen puntua da erabaki politikoei gero eta eragin gehiago dutela eguneroko bizimoduan. Gure artean zabaldu den erretolikak neoliberalismoaren nagusitasunari buruz hitz egin arren, eta, ondorioz, estatuaren ahultasunari erreparatu, errealitatea bestelakoa da; baita krisi ekonomikoaren konponketarako proposatu diren neurriak alde batera utzita ere. Estatuaren esku-hartzea, ekonomian, hezkuntzan, osasungintzan, kulturaren arloan, sexualitatean edota janari kontuetan inoizko altuena da. Horren ondorioz, erakunde publikoen presentzia publikoa asko hazi da azken hamarkadetan. Gertaera horrek zenbait aurpegi ditu, deigarrienak, beharbada, batera izan diren bi prozesu: egitura instituzional autonomikoak sendotzea, baina baita Espainiaren presentzia indartzea, bai arlo sinbolikoan (ikusirik ez dago zenbat aldiz etorri den azken urteetan erregea euskal lurraldeetara), baita praktikoa ere (AHTren azpiegiturarako estatuak jarritako dirua). Egoera horrek berekin ekarri du jarrera errebindikatiboak mantentzea, transferentzia guztiak gauzatu gabe gotea eta eraikuntza nazionalaren aldarrikapenak mantentzea, besteak beste.

Egiturazko faktoreen artean sar daitezke, era berean, euskal abertzaletasunaren ezin nagusitzea eta alderdi espainolen indartzea. Gutxi pentsatuko zuten 1979an autonomiak hogeita hamar urte bete ondoren, abertzaletasunak arazoak izango zituela nagusitasuna lortzeko, baina horrela gertatu da. Hiru dira, nire ustez, egoera hori azaltzeko erabili beharreko elementuak: abertzaletasunaren kudeaketak ekarritako aje, neke eta gabeziak, alde batetik; Espainiatik etorritako etorkinen badaezpadako integrazioa, bigarrenik, eta indarkeria politikoa mantentzea, azkenik. Aurreneko faktorea alde batera utzita, aipa ditzagun laburki beste biak. Etorkinen integrazioa, askok egin duten ahalegina mespretxatu gabe, ahula da. Hori diote, besteak beste, abstentzioaren datuek: Espainiako hauteskundeetan botoa ematen duten askok ez baitu ematen Gasteizko Legebiltzarrerako direnean. Alderdi abertzaleentzat mesedegarri izan daiteke zenbait kasutan, baina, epe luzerako arazo bat suposatzen du. Espainiako Kongresurako 2008ko hauteskundeetan ikusi dugunez, Espainiako alderdien nagusitasuna erabatekoa izan zen eta zilegitasun horrek indartu egin ditu bai PPren, baita PSEren asmoak.

Indarkeria dagokionez, ez dirudi epe laburrean bere eragina amaituko denik, ETAREN tregoa gorabehera. Egia da ETAREN indarkeriak euskal politika baldintzatzen duela, gutxiago Espainiakoa, baina azken urteetako neurriek, bide politziala, judiziala eta politikoak uztartzeak, asko ahuldu du haren ahalmena. Adibide bat jartze aldera, Mikel Garikoitz Aspiazu, *alias* Txeroki ETAKO buruzagi odol gose

moduan aurkeztu zuten hedabide askok. Egia da, saiatu saiatu zela, baina bera buruzagi izandako hiru/bost urteetan zazpi hildako baino ez ziren egon. Zer esango zuketen 1980. urteko ehun hildakoak errepikatu izan balira. Indarkeria eta bere ondorio kaltegarriak saihestu gabe eta gure azterketatik inoiz baztertu gabe, beharrezkoa dugu, era berean, erradikalismoaren gizarte-ahultasuna azpimarraztea; are gehiago lurraldetasunaren ikuspegitik begiraturaz gero. Euskal Herriko toki askotan, zorionez, bortxakeria politikoa fenomeno ia ezezaguna da azkeneko urteetan eta ezin da politika oso bat fenomeno horren inguruan eraiki. ETaren balioko amaierak edo jarduera armatu guztien etenak (lerro hauek idazten ari naizela ez da horrelakorik gertatu) ez du ekarriko euskal indar politikoen arteko orekan aldaketa sakonik. Muturreko kasuan 1998ko egoerara itzuliko ginateke.

6. 2009ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak

2009ko hauteskundeetako emaitzak dira, 2008koen ondotik, abertzaletasunaren kinkaren ispilu gardena.

| | |
|----------------|------------------|
| ERROLDA | 1.776.059 |
| Hautesleak | 1.148.697 |
| Abstentzioa | % 35,32 |
| Baliogabeak | 100.939 |
| Balekoak | 1.047.758 |
| Zuriak | 11.562 |

| ALDERDIAK | BOTOAK | BOTOEN % | ESERLEKUAK |
|------------------|---------------|-----------------|-------------------|
| EAJ-PNV | 399.600 | 38,56 | 30 |
| PSE-EE/PSOE | 318.112 | 30,7 | 15 |
| PP | 146.148 | 14,1 | 13 |
| ARALAR | 62.514 | 6,03 | 4 |
| EA | 38.198 | 3,69 | 1 |
| EB-B | 36.373 | 3,51 | 1 |
| UPD | 22.233 | 2,15 | 1 |

Egia da egoera berezian burutu zirela: Ezker Abertzale *ofizialaren* ilegalizazioak jokoz kanpo utzi zuen lehiakide garrantzitsu bat (nulu gehienak berari dagozkio). Hauteskunde-legeak, gainera, gehiegizko tokia ematen dio Arabari Legebiltzarrean eta D´Hondt sistemak alderdi handiak saritzen ditu txikien kaltetan. Hori guztia egia da eta ezaguna zen hauteskunde-kanpaina hasi aurretik. Parte hartu duten guztiek zuten arauen berri eta jokatzeari erabaki zuten, baita Ezker Abertzale ilegalizatuak ere boto nulua eskatu zuenean. Ezin da, *galdu* ondoren, errua araei bota.

PSEk, bigarren indarra izan arren, hauteskunderen gauean bertan azaldu zuen, ahobero, lehendakaritza hartzeko asmoa. Modu ia bakarra zegoen hori gertatzeko, PPren babes izatea, hain zuzen. Erabaki horrek hitz gogorak ekarri zizkion EAJren aldetik, kolpe instituzionala aipatu zuen, besteak beste, Iñigo Urkulluk agerraldi batean. Bide okerra hartu zuten, bai EAJK, baita sozialistek ere. EAJK ezin dio bigarren indarrari zilegitasun falta leporatu, Araban eta Gipuzkoan aldundien jabe denean, hirugarren eta bigarren alderdia izanik, hurrenez hurren. Sozialistek, aldiz, nekez justifika dezakete gobernu frentista bat osatzea, kanpaina osoa transbertsalitatearen alde eta frentismoaren aurka egiten ondoren.

Kontu larria da, baina gizartearen gehiengoa, diputazioak eta gehiengo sindikala izango ditu aurrez aurre, muturreko politika errebantxista egiten saiatzen bada lehendakari sozialista. Ikusiko dugu, bestetik, nori egiten dion mesede sozialisten erabakiak epe ertainera, beraiei, abertzaleei edota PPri

Hiru dira, une honetan, EAeko gizartearen gehiengoak 1979an ontzat eman zituen joko-arauak errespetatzen dituzten indar abertzaleak. Aralarrek izan duen hazkundeak erakusten du posible dela beste politika bat egitea, ezkerrekoa eta abertzalea dela, erreparorik gabe, errebindikatu. Batasunak babes handiagoa izan arren, inoizko emaitzarik txarrenak lortu ditu. Edozein modutan, gero eta nabariagoa da ezker abertzaleko kideek ez dutela ontzat ematen ETAK finkatzen duen estrategia.

EAREN kasuan, jasotako jipoiak azalpen gutxi behar du. Bakarrik aurkezteak, existitzen ez den polo soberanista baten alde egiteak eta ñabardurarik gabe eta topikoz betetako ezkerreko diskurtsoa erabiltzeak bere ohiko boto-emaileak uxatu ditu eta ez die boto bakar bat ere erakarri. 1986an lortutako 181.000 botoak 37.000 dira 2009an. Ezin da gehiago azaldu hain hitz gutxi erabilita. Egoera are kezagarriagoa izan zen, ordea, EAREN zuzendaritzaren eta hainbat kideren jarrera ikusita. Ziarretak porrotaren errua, komunikabideei eta herritarrei leporatu baldin bazien ere, EAREN inguruko blogetan egindako iruzkinek sektore kritikoa bizkar uzten dute boto-galeraren zama eta politika soberanistarekin jarraitzeko eskaera egiten zioten alderdiko zuzendaritzari. Ezohiko kongresuan aukeratutako lider berriek bide bera hartu zuten, baina ordurako zatiketa gertatu zen, Hamaika Baten sorrerarekin.

EAJ makina bat hausnarketa egin beharrean dago. Badauzka, noski, pozteko arrazoiak: 30 eserleku lortu zituen, EAeko lehen alderdia da eta ez du jasan askok iragartzen zioten higadura. Horrek ez du esan nahi arazorik ez duenik, hauteskunde-kanpainak barne-diferentziak isilarazi ditu, baina bertan diraute; abertzaletasunaren erreferente nagusiak izanik, gero eta toki handiagoa betetzen du eremu horretan, beste alderdien kaltetan. Fenomeno horrek, ordea, lankiderik gabe utzi du hauteskunde osteko koalizioak gauzatzeko orduan.

EAJren 28 urteko gobernuak erremin asko sortu du hainbat esparrutan eta horren lekuko izan zen Patxi Lópezen kemena martxoaren 1eko gauean ez ziola uko egiten lehendakari izateari iragarri zuenean. EAJK beste paradoxa bat ere bizi du, Ibarretxerekin irabazi zituen hauteskundeak, baina azaldu zuen programak bizkarra eman zien Ibarretxe lehendakariaren agintaldiko kezka nagusi izan ziren

kontsulta eta planei. Ibarretzek boto asko eman dizkio EAJri, baina koalizioak egiteko aukerak kendu dizkio. EAJk ezin du Ibarretxe alde batera utzi, baina aldi berean galga da hainbat hitzarmen lortu ahal izateko. Ez da erraza izango aldagai horiek guztiak biltzea eta bide zuzenetik eramatea.

Hauteskunde hauek bi ikasgai eman dizkigute, ororen gainera. Lehenengoa abertzaleek nagusi izaten jarraitzen dutela bototan, nahiz eta gutxiengoa izan Legebiltzarrean. Gainera, aspalditik datorren fenomeno bat berretsi dute: boto abertzaleak gero eta gutxiago dira, bai kopuru absolutuei erreparatuz gero, baita proportzioari so eginez gero ere. Bigarrena, euskal gizarteak jarrera moderatuenak babestu ditu, batetik igandera arte frentismoaren aurka azaldu zen Patxi López eta, bestetik, kudeaketarako gaitasuna azpimarratu duen EAJ. Hanka-sartze itzela izango litzateke lehendakari sozialista bat hartzea aitzakia moduan jarrera erradikalagoak bultzatzeko, abertzaleen batasunaren aldekoa adibidez.

7. Batasun-nahiaren lilura oker eta maltzurra

Ez da gaurkoa abertzaleen batasuna eskatzen duen aldarria, baina ikuspegi historiko batetik ez da hain zaharra ere. EAJ sortu zenean, bera zen indar abertzale bakarra eta bere mezu nagusiak dei egiten zien euskaldunei abertzaletasunaren multzora biltzera. Alta, EAJk ez zituen ondo hartu, erakunde gehienetan gertatu ohi den moduan, bere artetik alde egin eta beste alderdi bat sortu zutenak. Epelak entzun behar izan zituzten Jel Batza utzi eta *Aberrri* aldizkariaren inguruan bildu zirenek. 1930ean EAEn banaketaren unean alderdiaren ondasunen banaketak pistolak ere azaleratu zituen. ETA sortu zenean ere jeltzaleek gogor egin zuten hasi berrien aurka. Ez da, irakurleek ondo dakitenez, jeltzaleei bakarrik leporatu dakiekeen ezaugarria. Entzun, bestela, EAk Hamaika Bati buruz esandakoak edo Batasunak Aralarri buruz botatakoak. Munduko edozein tokitan aurki daitezke antzeko fenomenoak.

Zatitu edo aldendu direnek, maiz, jatorriari zor zaion fideltasuna aldarrikatzen dute eta, salbuespenak salbuespen, sortu berri diren taldeen inguruan egin beharreko batasunari dei egiten diote. 1960ko hamarkadaren amaieran azaldu zen, oker ez banago, abertzaletasunaren batasunaren aldeko lehen kanpaina sistematikoa. BAI (Batasuna, Askatasuna, Indarra) izan zen EAJtik zatitu berri zen ETA erakundeak bultzatu zuen ahalegina. Handik gutxira Euzko Gazteditik urrundu zen EGI-Batasuneko kide asko ETAko kide bilakatu ziren. Beste kontu bi nabarmendu nahi ditut, ordea; begi-bistakoa bata, baina oharkabean pasatzen dena: batasunak, lehenago, zatiketa eskatzen du. Bigarrena, gehienetan, batasuna apurtu dutenak izaten dira batasuna ozenkien aldarrikatzen dutenak.

Euskal abertzaletasunaren zatiketak ez dio erantzuten inongo teoria konspiratoriori. Bere historiaren ezagutzak erakusten dizkigun irakaspenen artean dago honako hau: abertzaletasuna gizarte-sektore berrietara heldu den neurrian, zaila izan zaio mezu bakarra mantentzea eta ugaritu egin dira tentsioak eta zatiketak. Gutxi aipatzen den adibidea jarriko dut. Jeltzaleen mezua euskal langileen artean zabaldu zenean, eta batzuek uste eta nahi duten baino oihartzun handiagoa izan zuen, abertzaletasunak eta bere izaera sozialak beste formulazio batzuk hartu zituen. 1936ko Gerra Zibila gertatu ez balitz, ziur aski, hirugarren alderdi abertzale

bat agertuko zen, EAJ eta EAEn ondoan. Euskal gizartearen bilakaerari eta EAJren bidearekin zeuden diferentziei erantzun zien ETAn sorrerak eta antzeko zerbait esan daiteke azken berrogei urte hauetan azaldu diren taldeei buruz.

Sakoneko arrazoiak ditu abertzaletasunaren zatiketak. Are gehiago, on egin dio mugimendu horri. EAEn datuetara mugatuz, indar abertzaleen emaitzarik onena 1986an gertatu zen lau alderdi abertzale aurkeztu zirenean: EAJ, EA, HB eta EE. Lauren artean botoen % 67,6 lortu zuten; 2001ean bi zerrenda abertzale baino ez ziren aurkeztu (EAJ-EA koalizioa eta EH), % 52,5 baino ez zuten lortu. Nafarroari dagokionez, 1987an HB, EA, EE, EAJ eta Batzarren artean abertzaleek botoen % 27 eskuratu zuten eta 2007an Nafarroa Bairen botoen eta Batasuneko nuloen artean % 28ra ez ziren heldu. Arazoa, begi-bistan dagoenez, ez da abertzaleen zatiketa. Beste gauza bat da, indarrean dagoen hauteskunde-sistemak talde handiei eta koalizioei mesede egitea. Eta abertzale guztiak helburu berdinak edukiko balituzte, elkarlanak beraien jardunaren ezaugarria izan beharko lukeela. Ez da, ordea, horrela gertatzen.

Bost dira, nire ustez, lankidetzaren eragozten duten faktoreak. Lehenik eta behin, ETAn presentzia, eta ondo esan dut, presentzia bera oztopo larria baita. Erakunde armatua hor dagoen bitartean, euskaldunen erabakiak gainbegiratzen eta baldintzatu nahian, nahiz eta ekintzarik ez gauzatu, ezinezkoa da abertzaletasunaren elkarlanak unean uneko urratsak gainditzea. Maltzurkeria da esatea desadostasunak paktatu daitezkeela edo estatuaren gehiegikerien aurrean elkarrekin aritu behar dela, batzuk ETAn bortxakeriaren aurrean mutu geratzen diren bitartean. Indarkeria politikoak bere inguruan dagoen guztia kutsatzen du eta abertzaletasunak bizi duen krisiaren arrazoietakoa bat ETAn indarkeriaren aurrean zenbait unetan erakutsi duen epelkeria da. Bigarren arrazoiak lotura estua dauka aurrenekoarekin. Mila kritika egin dakizkioke egun dugun autonomia-sistemari, eta asko arrazoizkoak dira, baina euskaldunen gehiengoak ontzat ematen du. Ez dirudi zuzena denik, hari horretan, Nafarroako eta EAEn Legebiltzarretako erabakiak inposatu egiten direla esatea, Batasuna bertan zegoenean Hego Euskal Herriko gizarte osoaren ordezkariak bertan zegoenean. Bestalde, egin nahi diren aldaketak araututako bide eta prozeduren bitartez gauzatu nahi ditu euskal herritarren gehiengoak, tranpaz jositako bidea dela jakin arren, Kataluniako estatutuarekin gertatutakoa lekuko. Ez da erraza baldintza hori onartzen ez dutenekin lan egitea.

Bi faktore horiek aldatuko balira, eredu sozialei buruzko diferentziek ere ez lukete aukera handirik emango lankidetzarako. Ibarretxeren gobernua neoliberalismoaren ikurra eta gailurra baldin bazen, EAJk («Partido del Negocio Vasco») dirua baino ez badu ikur, AHTk eusko lurra suntsitzea baldin badu helburu, Hamaika Bat-ek karguei baino ez baldin badie erreparatzen, langileriaren prekaritatea areagotu baino ez baldin badute egiten erakunde publikoen neurriek... Zertarako eta nola nahi dute haiekin batera aritu ezkerrekoak eta abertzaleak direnek?

Laugarren faktoreak abertzaletasunaren barruan hegemonia lortzeko dagoen lehiari erreparatzen dio. Bitxia, deigarria eta adierazgarria izan da jakitea balizko polo subiranistaren helburu nagusia, epe motzera behintzat, ez dela PSE-PP Jaur-laritzatik kentzea edo aldundietara heltzea eragozte, EAJren erreferentzialtasuna kolokan jartzea baino. Aipatu dut arestian EAJk ez duela bere ibilbidean malgu-

tasun handirik erakutsi beste alderdi abertzaleekin lankidetzan aritzeko, baina ez dirudi besteek ere gauza handirik ikasi dutenik. Talde horientzat abertzaleen batasuna aldarrikatzea borroka-tresna baino ez da eta ez benetako helburua.

Edozelan ere, azken oztopoa da garrantzitsuena: abertzaleen batasunak konponduko lituzkeenak baino arazo gehiago sortuko lituzke. Alde batetik, eta kontuak egitea erraza da, ez luke euskal gizartearen gehiengoa biltzeko gaitasunik izango, Euskal Herriak zazpi lurralde biltzen dituela sinesten badugu behintzat. Ipar Euskal Herriko politikan, abertzaleen fronte batek ez du gaitasunik esku-hartze eraginkorra bultzatzeko; antzeko zerbait gertatzen da Nafarroan. EAEn, egoera hobeia izan arren, ezagunak dira sortuko liratekeen arazoak: Araban ia ezinezkoa litzateke indar espanyolistei aurre egitea, Bizkaian Ezkerraldea haien esku geratuko litzateke. Gauza bera gertatuko litzateke, Donostian, Eibarren, Irunen edo Lasar-ten esate baterako. Euskal Herria Atxuritik Ebrora heltzen dela erakutsi ziguten. Batzuentzat, antza, nahikoa da Leatik Urumeara heltzen baldin bada. Batasuna gauzatuko balitz, areagotu egingo lituzke euskal gizartearen barne-tentsioak eta bizi dugun egoera ekonomiko eta politikoan enfrontamenduak ez lioke mesederik egingo euskal abertzaletasunari. Paradoxikoa iruditu arren, krisi ekonomikoarekin batera ez baldin bada gertatzen botere politikoarekin zatiketarik, eta Espainian ez da horrelakorik gertatuko, aldaketa erradikalek ez dute aukera handirik izaten. Are gehiago, egoera horrek sortuko lukeen frustrazioak ez luke, batzuek uste dutenaren aurka, ezker abertzalea elikatuko, nazionalismo espainiarra baino, Lizarra-Garaziren garaian gertatu zen moduan.

Arazoa, edozein modutan, egiturazkoa da eta benetako konponbideek epe ertain edo luzekoak izan behar dute. Lehenik eta behin abertzaletasunari buruzko hausnarketa bultzatu behar da, horretarako esparru irekiak eta iraunkorrak sortuz, birmoldatuz edota bultzatuz. Hausnarketa horrek errealitate historiko eta soziala kontuan hartu behar du, abertzaletasunaren erreferente historikoak berreskuratuz eta eguneratuz. Politika egiteko modua ere aldatu behar da, gizarte-partaidetza, alderdietan eta erakundeetan, indartuz eta kontsentsu zabalak lortuz. Horrela bakarrik lor daiteke gizarte kohesionatua eraikitzea eta hori da burujabetzaren bidean sakontzeko bide bakarra gaurko eta hemengo Euskal Herrian.

Bibliografia

- Boix, C. eta Riba, C. (2000): "Las bases sociales y políticas de la abstención en las elecciones generales españolas: recursos individuales, movilización estratégica e instituciones electorales", *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, **90**, 95-128.
- Elzo, J. (1987): "Aspectos de la socialización en la sociedad postindustrial", *RIEV*, **32-1**, 11-24.
- , (2000): "Unidad y pluralidad en los valores de los vascos", *Talaia*, **6**, 18-37.
- , (2001): "Les Basques sont-ils différents. Quelques données sociologiques sur le fait différentiel basque", *Le Temps Modernes*, **614**, 256-265.
- , (2002): *Los valores de los vascos y navarros ante el nuevo milenio : tercera aplicación de la Encuesta Europea de Valores (1990,1995,1999)*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.

- , (2006): *Después de ETA: reflexiones de un sociólogo*, Donostia, argitaratuga-bea.
- Epalza, A. (2007): *Bezperaren bezpera*, Pamiela, Iruñea.
- Hausnarketa bat, Font Fàbregas, J. (1995): "La abstencion electoral en España: certezas e interrogantes", *Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, **71-72**, 11-57.
- Gurrutxaga, A. (2004): *El presente del Estado-Nación*, EHU, Bilbao.
- Innerarity, D. (2002): *La transformación de la política*, Península, Bartzelona.
- Lago Peñas, I. (2000): "Identidades duales y abstención diferencial en las comunidades autónomas: los casos de Cataluña, Galicia y País Vasco", *Dereito*, **9-2**, 83-103.
- Montero, T.; Aierdi, X. eta Bullain, I. (2008): *Retos y propuestas socio-políticas en la situación actual en el País Vasco*, Idatz, Donostia.
- Rekondo, J. A. (2009): "El nacionalismo tras el 9-M", *Deia*, 2009-04-11.
- Vallés, J. M. eta Luque, M. (2009): *L'abstenció diferencial a les àrees metropolitanes de Barcelona i Madrid*, ICPS-UAB, Bartzelona.
- Walzer, M. (2010): *Pensar políticamente*, Paidós, Madril.

